


Año IV. urtea

136 - 2023

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

**Hizkuntza-ideologiak.
Euskararen biziberritzean
eragiteko analisi-tresna**

Miren Artetxe Sarasola

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LV. urtea - N.º 136. zk. - 2023

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

- Egileen eta arazleen sintaxia jite adjektiboen argitan**
Ane Berro Urrizelki, Leire Sánchez-Dorronsoro 287
-
- Hizkuntzekiko Irakaskuntza Sentsiblearen gaineko usteak: EAEko LHko irakaslegaien iritziak aztergai**
Artzai Gaspar, Oihane Galdos, Eider Saragueta, Karin van der Worp, Leire Ituiño-Aguirre 321
-
- William Wordsworth's *Sonnets Dedicated to Liberty*: the poems about Basque mountaineers**
Haritz Monreal Zarraonandia 347
-
- Gatazka armatua eta genero gatazka bidegurutzean. Jokin Muñozen narratiba begirada feminista batetik**
Amaia Serrano Mariezkurrena 371
-
- La notación de onomástica no latina en la documentación legerense: aspectos sociolingüísticos**
Guadalupe Lopetegui Semperena 397
-
- Euskal komiki-liburuak. Goranzko joera baten azterketa**
Naroa Zubillaga Gomez 421
-
- Kultura zinematografiko bat sortzeko bide luzea: XX. mendeko euskal idazleak zinemaren aitzinean (1910-1980)**
Josu Martinez Martinez 437
-
- Hizkuntza-ideologiak. Euskararen biziberritzean eragiteko analisi-tresna**
Miren Artetxe Sarasola 457
-

Sumario / Aurkibidea

VARIA

La mano de Irulegi: reflexiones desde la paleohispanística y la vascoología [Dosier] Joaquín Gorrochategui, Ekaitz Santazilia (eds.)	485
La mano de Irulegi: edición y comentarios epigráficos y lingüísticos Joaquín Gorrochategui, Javier Velaza	491
Una mano cortada Francisco Beltrán Lloris	503
La inscripción vascónica de la mano de Irulegi desde la perspectiva ibérica Joan Ferrer i Jané	515
Observaciones sobre la inscripción de la mano de bronce de Irulegi Eduardo Orduña Aznar	539
Un enigma envuelto en un misterio: la interpretación lingüística de la mano de Irulegi Iván Igartua	551
Sobre la lengua de la mano de Irulegi: apuntes y conjeturas Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño	565
An assessment of the Basque Interpretation Hypothesis on the inscription contained in the hand of Irulegi Julen Manterola, Céline Mounole	583
<i>Zorioneko</i> y <i>zorion</i>: lo que nos dice de ellos la historia de la lengua vasca Joseba A. Lakarra	597
¿Es la lengua de la mano de Irulegi la antecesora <i>directa</i> del euskera histórico? Mikel Martínez-Areta	617
Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals	639

Hizkuntza-ideologiak. Euskararen biziberritzean eragiteko analisi-tresna

Ideologías lingüísticas. Una herramienta analítica para incidir en la revitalización del euskera

Linguistic ideologies. An analytical tool to influence the revitalization of the Basque language

Miren Artetxe Sarasola
NOR Ikerketa Taldea, UPV/EHU
miren.artetxe@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0002-7067-0179>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv136.8>

Lan honek Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren laguntza jaso du (IT-1438-22).

Jasotze data: 2023/06/14. Behin-behineko onartze data: 2023/09/05. Behin betiko onartze data: 2023/11/09.

LABURPENA

Artikulu honetan *hizkuntza-ideologia* nozioaren baliagarritasuna azpimarratu nahi izan da, euskararen biziberritzearen ikuspegitik. Hizkuntza-ideologiaren kontzeptuan arakatu da lehenik, bigarrenik, hizkuntza gutxituen eta euskararen kasuan hiztun baten autoritatea baldintzatu dezaketen hainbat marko ideologiko aurkeztu dira, eta hirugarrenik, hizkuntza-ideologia horien baitan euskararen garapenak izan ditzakeen zenbait oztopo aipatu dira, marko ideologiko berrien beharra mahaigaineratuz. Azkenik, iker-tzaile gisa hizkuntza-ideologiaren azterketan sakontzearen beharra azpimarratu da.

Gako hitzak: hizkuntza-ideologiak; autentikotasuna; anonimotasuna; estandarraren ideologia; euskararen biziberritzea.

RESUMEN

En este artículo se ha querido subrayar la utilidad de las ideologías lingüísticas desde el punto de vista de la revitalización del euskera. Se indaga primero en el concepto de ideologías lingüísticas, en segundo lugar, se presentan una serie de marcos ideológicos que pueden condicionar la autoridad de una o un hablante en el caso de las lenguas minoritarias y del euskera, y en tercer lugar, se mencionan algunos obstáculos que puede tener el desarrollo del euskera dentro de esas ideologías lingüísticas, planteando la necesidad de nuevos marcos ideológicos. Por último, se incide en la necesidad de profundizar en el análisis de las ideologías lingüísticas desde la labor investigadora.

Palabras clave: ideologías lingüísticas; autenticidad; anonimidad; ideología del estándar; revitalización del euskera.

ABSTRACT

In this article we want to underline the usefulness of linguistic ideologies from the point of view of the revitalization of the Basque language. In the first place we analyze the concept of linguistic ideologies; secondly, we present a series of ideological frameworks that can condition the authority of a speaker in the case of minority languages in general and Basque language specifically; thirdly, we mention some obstacles that the development of Basque may have within these linguistic ideologies and discuss the need for new ideological frameworks. Lastly, this paper also focuses on the need for researchers to deepen the analysis of linguistic ideologies.

Keywords: language ideologies; authenticity; anonymity; standard language ideology; Basque language revitalization.

1. SARRERA. 2. HIZKUNTZA-IDEOLOGIA, IKERKETA-ILDO BAT. 2.1. Kontzeptuaren genealogia eta ikerketa-ildo baten egituratzea. 2.2. Hizkuntza-ideologiaren gaineko ikerketak Euskal Herrian. 3. HIZKUNTZA-IDEOLOGIAK, ZERTARAKO? 3.1. Hizkuntza-ideologiak gizarte-egituren eta hizkuntza-praktiken arteko zubi. 3.2. Hizkuntza-ideologiak eta hizkuntzaz gaindiko botere-dinamikak. 4. HIZKUNTZA-AUTORITATEA EZBAIAN. BENETAKOTASUNA, ANONIMOTASUNA ETA ESTANDARRAREN IDEOLOGIA. 4.1. Benetakotasuna. 4.2. Anonimotasuna. 4.3. Hizkera estandarraren ideologia. 5. EUSKARA IDEOLOGIEN ARTEAN HARRAPATUTA? 5.1. Benetakotasunaren kale itsua. 5.2. Anonimotasunaren eta estandarraren ideologiaren herrena. 5.3. Ideologiak etengabeko aldaketan. 6. AZKEN GOGOETA ETA ALDARRIA. 7. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Euskararen biziberritzeaz ari garela, maiz izaten ditugu ahotan hizkuntza-ohiturak, -hautuak, -gaitasunak eta -erabilerak. Aldiz, gutxiagotan hitz egiten dugu hizkuntza-ideologiaz edo -ideologiez. Alta, hizkuntza-ideologiek eragina dute praktikan, hizkuntza-praktikek ideologian eragina duten bezalaxe. Diskurtsoek errealitatea molda dezakete, errealitatearen parte ere badirelako. Hizkuntza edo hizkera bati buruz pentsatzen dugunak gure hitz egiteko moduak moldatzen dituen bezalaxe, pentsa liteke gure hizkuntzei edo hizkerei buruz pentsatzeko modua aldatzeak gure hizkuntza-praktikak alda ditzakeela. Euskarari buruzko diskurtsoetan eragitea bada, beraz, hiltunen hizkuntza-hautuetan eta -ohituretan eragiteko modu bat.

Hizkuntza-ideologiez aritzea, ordea, ez da ohikoa izan gure eguneroko hizketan, ez eta euskarari buruzko jardun akademikoan ere, oraintsu arte bederen. Artikulu honen helburua da, beraz, euskararen biziberritzean eta euskarazko hizkuntza-praktikan hizkuntza-ideologiek duten eragina mahai-gaineratzea. Horretarako, berrikuspen bibliografiko baten bidez hizkuntza-ideologiaren kontzeptuan arakatu da, lehendabizi. Ondoren, hizkuntza-praktikan eta, beraz, errealitate soziolinguistikoan eragina izan dezaketen hizkuntza-ideologia jakin batzuk aztertuko dira, adibide gisa –benetakotasunaren, anonimotasunaren eta estandarraren gaineko hizkuntza-ideologiak, hain zuzen– ideologia horien arriskuak eta mugak aipatuz, eta marko ideologiko berrien beharra azpimarratuz. Azkenik, hizkuntza

biziberritzearen¹ ikuspegitik ikertzaile gisa hizkuntza-ideologiaren azterketan sakontzearen beharra azpimarratuko da lan honetan, hizkuntza-ideologiak tresna analitiko gisa erabiltzearen aldeko aldarria eginez.

2. HIZKUNTZA-IDEOLOGIA, IKERKETA-ILDO BAT

Hizkuntza-ideologia batez ere hizkuntza-antropologian eta soziolinguistikaren² erabiltzen den kontzeptua da, hizkuntzari, hizkuntzei, hizkerari edo hauen erabilerei buruzko edozein sinesmen edo ideia-sortari erreferentzia egiteko. Beste era batera esanda, hizkuntza-formen eta gizarte-egituren arteko zubi-lana egiteko tresna da hizkuntza-ideologia, «if such static imagery for some very dynamic processes can be forgiven» (Woolard, 1992, 235. or.).

2.1. Kontzeptuaren genealogia eta ikerketa-ildo baten egituratzea

Hizkuntza-ideologia kontzeptua bera, eta kontzeptuaren helmena zein erabilera, ez dira zedarrizten errazak. Izendapena bera ere nahasgarri suerta liteke maiz. *Ideologia linguistikoa*, *hizkuntza-ideologia* edo *hizkuntzaren ideologia* terminoak erabili izan dituzte azken mende erdi pasatxoko literaturan hizkuntzen eta ideologiaren arteko loturaz aritzeko. Izendapenen ezberdinen banaketa eta mugarritzea ez da inondik inora zehatzatza, ordea. Are gehiago, Kathryn Woolardek dioenez, izendapenok elkarren ordezkagari suertatu izan dira maiz: «*Language ideologies, linguistic ideologies, and ideologies of language* are alternative labels for the same field of inquiry and are generally used interchangeably» (Woolard, 2021, 1. or.).

Izendapenak izendapen eta ikuspuntuak ikuspuntu, *hizkuntza-ideologia* 1960ko eta 1970eko hamarkadetan hasi zen ikerketa-ildo gisa egituratzen, Amerikako Estatu Batuetan bereziki³, *hizketaren etnografia* aztergai zuten eskolako ikertzaileen eskutik. Ikertzaileok aztertzen zutena zen, hain zuzen ere, zein elkarreragin zegoen kulturalki eraikitako hizkuntzari buruzko kontzepzioen eta kulturalki bereizgarriak ziren hitz egiteko moldeen artean (Bauman & Sherzer, 1975). Hala, hizkuntza-ideologiak hizkuntza-formetan zuten eraginean jarri zuten begirada hainbat ikertzailek,

1 Hizkuntzaren biziberritzeaz, normalizazioaz, berreskurapenaz, indarberritzeaz edo suspertzeaz hitz egin izan da eremu akademikoan bezalaxe gizarte-eremu zabalagoan ere, prozesu sozial berari erreferentzia egiteko. Ibon Manterola eta Naiara Berasategik (2011, 43. or.) dioten gisan, «prozesu sozial hori, funtsean, hizkuntza gutxituarentzat hitzunak eta erabilera-esparruak irabaztean datza».

2 Izendapen orokor hauek erabiltzen ditut zehazki bereizi nahi izan gabe *hizkuntza-antropologia* eta *hizkuntzaren antropologia* ez eta *soziolinguistika* eta *hizkuntzaren soziologia* ere, *hizkuntzaren ideologiaren* ikerlekoaren baitan azpi-diziplina hauek denak biltzen baitira, ikuspegiak elkarrengandik bereizi arren.

3 Merez du zehazteak ikerleko gisa Amerikako Estatu Batuetan egituratu bazen ere –ikerlari batzuen berariazko ahaleginari esker, besteak beste– ordura arte, oro har, hizkuntzari buruzko hitzunen sinesmen eta sentipenak ez zirela ikergai gisa aintzat hartu tradizio anglofonoan, eta aldiz, europar tradizioan aspalditik ikertu izan zirela ordurako hizkuntzekiko kontzeptualizazioak, jarrerak zein sinesmenak. Horren erakusgarri da, esaterako, Valentin Voloshinov-en 1929ko *Марксизм и философия языка* lana (*Marxism and the Philosophy of Language*) ez zela ingelesera itzuli 1973ra arte (Piller, 2015, 3. or.).

hizkuntza-ideologia gisa ulertuz «any sets of beliefs about language articulated by the users as a rationalization or justification of perceived language structure and use» (Silverstein, 1979, 193. or.)⁴.

1980ko hamarkadan, ikerlerroa garatu ahala, zenbait ikertzailek hizkuntza- eta giza-harremanen gaineko ideia-multzoen eta gizarteko botere-dinamiken arteko harremanen jarri zuten fokua (Friedrich, 1989; Gal, 1989; Irvine, 1989). Ikuspuntu horretatik, honela definitzen du Judith Irvinek (1989, 255. or.) *hizkuntza-ideologia*: «the cultural (or subcultural) system of ideas about social and linguistic relationships, together with their loading of moral and political interests». Hamarkada honetan, beraz, hizkuntza-ideologiaren inguruko ikerketek hizkuntzen, hizkeren eta hiztun kategorien arteko desberdinkerian eta hauen arteko botere-harremanetan jarri zuten arreta.

Alabaina, 1990eko hamarkada erditsutan zenbait autore *hizkuntza-ideologia* kontzeptuaren inguruko ikerketa-ildo bateratu bat osatzeko saiakeran hasi ziren. Kathryn Woolard-ek eta Bambi B. Schieffelin-ek, bereziki, ahalegin handia egin zuten hizkuntza-ideologiaren gaineko ikerketa orduan aski sakabanatuak –baina ugariak– biltzeko eta, batez ere, ezagutarazteko, hizkuntza-ideologiaren inguruko ikerlerroa finkatuz hizkuntzalaritza zein gizarte-zientzietako hainbat azpi-diziplinaren baitan. Izan ere, kontsentsu moduko bat azaleratzen ari zen hiztunek hizkuntzari buruz pentsatzen edo sinesten zutena ikertzen zuten ikertzaileen artean, eta ikerlerro gisa koordinazio bat egotea mesedegarritzat jo zen (Woolard & Schieffelin, 1994, 56. or.), izendapenak izendapen:

If we look beyond the term itself we find a wealth of studies that address cultural conceptions of the nature of language, under the guise of metalinguistics, attitudes, loyalty, values, prestige, stigmatization, beliefs, norms, standards, aesthetics, hegemony, etc. From this welter of work, it becomes apparent that there is an intellectual field in need of review and coordination, under whatever name (Woolard, 1992, 236. or.).

2.2. Hizkuntza-ideologiaren gaineko ikerketak Euskal Herrian

Ildo horretan koka daitezke Euskal Herriko testuinguruan egin diren hainbat ikerketa ere. Aitzindari gisa aipa litezke 1990eko hamarkadako Jacqueline Urla-ren lanak. Izan ere, Urlak, alde batetik, gazteek euskararen inguruan garatutako adierazpide berriak

4 Esaterako, Michael Silverstein-en (1979) adibide ezagunetako bat zenbait europar hizkuntzetako izenordainen erabileraren ingurukoa da. Frantsesez, esaterako, *tu* ala *vous* izenordainak erabiltzen dira bigarren pertsona batengana modu informalean ala formalean zuzentzerako garaian. Hots, XIX. mendera arte, *tu* eta *vous* modu asimetricoan erabili ohi ziren: boteredunak (gurasoak, irakasleak, neba-arreba zaharragoak, edo laneko nagusiak) hierarkian beheragokoari *tu* esango zion, eta honek, aldiz, *vous* erabiliz erantzungo zion boteredunari. XX. mendean, ordea, asimetria hori desagertu egin zen eta sistema simetrikoko bat plantan ezarri: elkarriketetan hizlari batek zein besteak izenordain bera erabiltzen dute bigarren pertsonari erreferentzia egiteko, *turen* kasuan hurbilekotasuna adieraziz –eta sortuz– eta *vousren* kasuan, aldiz, distantzia. Aldaketa linguistikoa honek, Silversteinen (1979) ustez, gizarte-egituren, ohituren, eta jendetasun kodeen aldaketan du oinarri: modu zurrunean estratifikatutako gizarte batetik gizarte berdinzaleago batera pasa izanaren adierazle dira izenordainen erabileran emandako aldaketak.

aztertu zituen (1995, 1999a, 1999b) –bereziki musikaren eta irrati librean eremuan–, erakutsiz gazteen hizkuntza-praktiketan eragina zutela hizkuntza-biziberritze mugimendutik eta hizkuntza-normalizaziorako erakundeetatik sortu eta hedatu ziren diskurtsoek. Jaime Altunak azpimarratzen duen bezala, Urlaren lanek euskararen biziberritze-prozesuaren beraren karga ideologikoa azpimarratzen dute, hizkuntza-plangintzak «biziberritzerako urratsak irudikatzeaz gain, erabileran eta hizkuntza bera ulertzeko eta pentsatzeko moduan eragina [duela]» frogatuz (Altuna, 2023, 312. or.). Izan ere, Urlak mahai gainean jartzen du, besteak beste, euskararen ezagutza eta erabilerari buruzko datuak, mapak eta neurketa-tresnak argitaratzearekin, besteak beste, hiztunen iruditeria linguistikoaren eraketan eragiten dela, hiztunek hizkuntzari buruzko diskurtsoen koeraikuntzan eta hedapenean eragiten duten bezalaxe (Urla, 1993).

Urlaren lanen uberan, hain zuzen, badira, euskararen inguruko diskurtsoak ikuspuntu teoriko, sozial zein politikotik aztertu dituzten lanak (Hernández et al., 2006). Modu zehatzagoan, alderdi politikoen hizkuntza-ideologiaren analisia plazaratzen duen ikerlanik ere bada (Goirigolzarri, 2015⁵), eta zenbait ikertzailek aztertu dituzte hizkuntza-plangintzaren bidez bultzatu izan diren diskurtsoak ez ezik, diskurtso hauek hizkuntza-praktiketan duten eragina ere (Hernández & Santamaría, 2021; Järlehed, 2008; Legorburu, 2022a, 2022b⁶).

Azken bi hamarkadetan, alabaina, gurean hizkuntzaren ideologia lantzen duten ikerketa gehienak, bereziki, gazteen edo eta hiztun berrien arloan plazaratu dira⁷. Izan ere, eskola bidezko euskararen transmisioa ardatz izan duten hizkuntza-politikei esker gaur egun Euskal Herrian euskara etxean ikasi ez duten euskal hiztunen kopurua gero eta handiagoa da –maila absolutuan zein euskal hiztun guztien arteko proportzioan, gazteen artean, bereziki–, eta aldi berean, hizkuntza-ezagutzaren eta -erabileraren arteko tartea ez da murrizten ari (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua & Euskararen Erakunde Publikoa, 2023). Hala, hiztun berriekiko ikerketek erakutsi dute hizkuntza-ideologiek eragina dutela hiztunok sentitzen duten legitimitatean, eta honek, halaber, eragina duela hiztunon hizkuntza-praktiketan (Altuna, 2023; Altuna & Hernández, 2021; Amorrortu et al., 2017; Artetxe, 2019, 2020, 2023; Hernández & Altuna, 2017, 2020; Ortega et al., 2015, 2016, 2017 edo Urla et al., 2016, 2018,

5 Jone Goirigolzarri 1980-2012 bitarteko Euskal Autonomia Erkidegoko alderdi politikoen hizkuntza-politikak eta hizkuntza-ideologiak aztertu zituen bere doktore-tesian, Eusko Legebiltzarreko hauteskunde-programen azterketaren bidez.

6 Johan Järlehed-ek bere doktore-tesian 1970etik 2001erako euskararen biziberritzearen aldeko diskurtsoen analisia egin du, Hernández eta Santamaría euskararen biziberritzerako politika eta diskurtsoetan gazteei eman zaien lekuak haien hizkuntza-praktiketan izan duen eragina aztertu dute, eta Onintza Legorburuk 1960-2018 bitartekoak aztertu ditu, genero-perspektibatik. Badaude generoa eta hizkuntza-ideologiak modu intersektzionalean lantzen dituzten lan gehiago ere: Legorburuk berak badu lan bat hitanoaren erabileran genero-erolek eta hizkuntza-ideologiek duten eragina aztertzen duena, eta Jaime Altunaren tesian ere gazteen kirol-munduko hizkuntza-sozializazioa aztertzen du, genero-sozializazioarekin ardazturik (Altuna, 2023; Legorburu 2018).

7 Lan hauetan hizkuntzaz etxeko jabeak ez den beste moduren batean jabetu diren hiztunak dituzte aztergai. Artikulu honetan ere, *hiztun berri* gisa izendatuko dira hizkuntza-jabekuntzarako bitarteko gisa modu bateko edo besteke hezkuntza formala izan duten hiztunak.

besteak beste). Eta oro har, ikusi ahal izan da gazteen hizkuntza-praktikak azaltzeko hizkuntza-ideologiak gako direla⁸.

3. HIZKUNTZA-IDEOLOGIAK, ZERTARAKO?

Ideologiek gure praktikak blaitzen dituzte, baita gure praktikak irakurtzeko moduak ere. Hizkuntza bati buruz pentsatzen dugunak eragingo digu hizkuntza horretako hiztunei buruz pentsatzen dugun horretan, eta alderantziz, hiztun-kategoria, edo hiztun-mota bati buruz pentsatzen dugunak eragingo digu haren edo haien hizkeraz ditugun ideia eta balorazioetan ere. Izan ere, ideologiek hitz egiteko moduen eta gizarte-egituren arteko zubi-lana egiten dute. Eta ondorioz, gizarteko dominazio-harremenen eta hizkuntza-hautuen arteko zubi-lana ere bai. Horretan datza, hain zuzen, hizkuntza-ideologiaren balio nagusia.

3.1. Hizkuntza-ideologiak gizarte-egituren eta hizkuntza-praktiken arteko zubi

Egin dezagun urrats bat atzera. Gaur egun aski argia bada ere hizkuntza-ideologiaz jardungo duen ikerlerro beregain baten beharra, ez da harritzekoa gaur arte *hizkuntza-ideologiaren* aterkipean bildu izana hizkuntzei buruzko ideia eta sinesmenak hizketa-modu zein hizkuntza-ekoizpen motak aintzat hartzen dituzten askotariko ikerketak. Izan ere, onerako eta txarrerako, *hizkuntza-ideologia* kontzeptua zabala bezain konplexua da, eta horrek ematen dio bide diziplina, ikuspegi eta tradizio metodologiko ugaritatik aztertua izateko. Horren harira definitzen du Paul Kroskryk (2004, 501. or.) *hizkuntza-ideologia* «cluster concept [gisa], consisting of a number of converging dimensions», azpimarratuz kontzeptua bera partzialki gainezartzen diren eta aldi berean bereizgarriak diren geruzek osatzen dutela.

Gauzak diren bezala, ez dago argi zehazki zeri egiten dion erreferentzia *hizkuntza* kontzeptuak berak, eta zer esanik ez *ideologia* terminoak: «La palabra ‘ideología’ es en sí misma un texto, urdido en un tejido de hilos conceptuales» (Schieffelin et al., 2012, 22. or.).

Ideologia terminoa bera XVIII. mende-bukaeran erabili zuen lehen aldiz Antoine Destutt de Tracy filosofo eta politikari frantziarrak, ideien zientzia moduko bat izan nahi zuen diziplina akademiko berri-nahi bati erreferentzia egiteko (Schieffelin et al., 2012). Berehala hartu zuen kontzeptuak kutsu negatiboa, ordea, Destutt de Tracy eta bere kide errepublikazaleei sinesgarritasuna kentzeko Napoleonen ahaleginak medio, besteak beste (Schieffelin et al., 2012, 5. or.). Orduz geroztik *ideologia* terminoari esanahi ugari esleitu zaizkio, elkarrekiko kontraesankorrak batzuk, eta osagarriak besteak⁹. Zenbaitentzat, ideologia da «esa parte de la conciencia que puede ser dicha»

⁸ Lan honetako 5. atalean xehatuko dira lan hauetako batzuen ekarpenak.

⁹ *Ideologia* kontzeptuaren problematizazioan sakontzeko ikus Eagletonen *Ideology: An introduction* (1991) eta *Ideology* (2014).

(Thompson, 1984, 85. or. apud Schieffelin et al., 2012, 23. or.). Beste batzuentzat, eta bereziki frantziar estrukturalista eta post-estrukturalistentzat, ideologiak ez du zertan kontzientea izan, ez eta erabakia edo antolatua ere, hots, ez du, funtsean, pentsamendu forma izan beharrik ere: izan liteke jarrera bat, edo praktika bat. Louis Althusser pentsalari marxistaren ideiak bilduz, hala definitzen du Terry Eagleton-ek (1991, 18. or.) *ideologia*: «a particular organization of signifying practices which goes to constitute human beings as social subjects, and which produces the lived relations by which such subjects are connected to the dominant relations of production in a society»¹⁰.

Hain kontzeptu irristakorra izanik, zergatik tematu kontzeptu hori erabiltzen, eta are gehiago, kontzeptu horren jirako ikerketa-arlo bat egituratzen? Alde batetik, hizkuntzen buruzko ikerketetan kontzeptua bera gero eta gehiago erabiltzeko joera nabarmena dagoelako, eta ugariak direlako hizkuntzaren kontzepzio kulturalen gaineko ikerketak –aurreko atalean azaleratu nahi izan den gisan–. Baina, batez ere, analisi-tresna gisa duen balioagatik zaigu baliagarria kontzeptua.

Izan ere, gizarteko botere-harremanen eta hizkuntza-praktiken arteko loturari begiratzeko tresna baliagarria da, hizkuntza-ideologiaren tresna kontzeptuala. Bambi Schieffelin eta bere kideen hitzetan hizkuntza-ideologiak «son las representaciones, sean explícitas o implícitas, que interpretan la relación entre la lengua y los seres humanos en el mundo social» (Schieffelin et al., 2012, 19. or.), eta zentzu horretan, hizkuntza-ideologiak modu berezian aztertzea merezi du –eta ez soilik forma linguistikoz zein hizkuntza-praktiken oinarrian dagoen elementu inplizitu edo epifenomeno gisa–, hain zuzen, ideologiok aztertzeak errealitate sozialaren eta hiztunen hitz egiteko moduen eta hizkuntza-hautuen arteko loturak aztertzeke balio digulako.

Izan ere, zenbait hizkuntza- edo/eta gizarte-fenomeno ezin dira azaldu hizkuntza-ideologiaren alde performatiboa kontuan hartu gabe: hizkuntza bat testuinguru jakin batean ez erabiltzea, esaterako, egon liteke hiztunaren gaitasunari baino, bere buruari egotzen dion legitimitateari lotua. Edo hizkuntza bat testuinguru jakin batean *gaizki ikusia* edo *markatua* izateak berak bultzatzen lezake hiztuna hizkuntza *ez markatua* edo egokitzat irakurria erabiltzera. Are, hizketakide dugunaren hizkuntza-gaitasunaz edo -jarreraz izan ditzakegun aurreiritziek eraman gaitzakete berarekin hizkuntza bat ala beste erabiltzera.

Ideologiak errealitatea sortu eta birstortu egiten dute eta eragin zuzena dute mundu sozialean, nahiz eta maiz munduaren deskribapen modura baino ez ulertu (Eagleton, 1991). Jaime Altunak (2023, 309. or.) dioen gisan, «askotan hizkuntza-ideologia hizkuntza bat edo batzuen gainean egindako balorazio abstraktu soil gisa irudikatzen da, neurri batean errealitatean eta praktikan duen boterea eta eragina gutxietsiz. Baina hizkuntza-ideologia balorazio, iritzi, uste eta diskurtsoez haratago doa». Gure errealitate sozialaren baitan egiten ditu hiztunak bere hizkuntza-hautuak, eta errealitate

10 Pierre Bourdieu-ren (1977) *habitus* kontzeptuak ere erantzungo lioke ideologiaren definizio honi.

soziala aldi bereko botere-harreman sare konplexua da. Konplexutasun horretan hizkuntzei, dialektoei, hizkerari edo azentuei buruz ditugun –eta gizartean zirkulazioan dauden– ideiek eta pentsamenduek gure praktikak baldintzatuko dituzten bezala, gure eta gure inguruko hizkuntza-praktikek baldintzatuko dituzte hizkuntzei buruz ditugun pertzepzioak, usteak eta ideiak ere.

Hizkuntza-ideologiei esker, beraz, zubi-lana egin liteke gizarte batean eman daitezkeen hizketaldien eta gizarte horren baitako botere-harremanen artean. Eta ez hiztunen edo hizkeren arteko botere-harremanean soilik: «The topic of language ideology is a much-needed bridge between linguistic and social theory, because it relates the microculture of communicative action to political and economic considerations of power and social inequality, confronting macrosocial constraints on language behavior» (Woolard & Schieffelin, 1994, 72. or.). Eta zubi horrek eskaintzen digu parada hizkuntza-praktiken aldean jarri eta gizarteko egiturazko botere-harremani begiratzeko, zein beste zentzuan, botere-dinamika zehatzek hizkuntza-praktiketan nola eragiten duten behatzeko.

3.2. Hizkuntza-ideologiak eta hizkuntzaz gaindiko botere-dinamikak

Hizkuntza-ideologiez hitz egiteko beste arrazoi bat da kontzeptuak balio duela azpimarratzeko, hain zuzen ere, hizkuntzekiko ideia, jarrera zein praktikek posizio ideologiko jakin bat adierazten dutela, eta edozein posizio ideologiko bezalaxe, historian zehar eraikitako marko kulturalen baitan ulertu behar direla: «The term ideology reminds analysts that cultural frames have social histories and it signals a commitment to address the relevance of power relations to the nature of cultural forms and ask how essential meanings about language are socially produced as effective and powerful» (Woolard & Schieffelin, 1994, 58. or.).

Izan ere, hizkuntza-ideologiak ez dira ezerezetik sortzen. Hizkuntzei buruzko gure ideiak inguratzen gaituzten eragile sozialen ideiekiko elkarreraginean garatzen ditugun bezalaxe, hizkuntza-ideologiak beraiek ez dira bestelako konplexu ideologikoekiko¹¹ modu isolatuan eraiki, eta hizkuntzei buruz pentsatzean bestelako fenomeno sozialei buruz pentsatzen dugunaren interferentziak saihestezinak dira. Historikoki, hizkuntza bat zer den eta zer ez den definitzeko erabili izan diren irizpideak ere, ez dira irizpide linguistiko soilak. Egia baduen *boutade* famatuak ongi laburbiltzen duen moduan,

11 Woolarden bidetik, artikulua honetan *konplexu ideologikoak* aipatzen dira –diskurtsoaren analisi kritikoan kokatzen diren lanetan maiz egin ohi den bezala– (Woolard, 2016, 33. or.), izan hizkuntzari buruzko zein bestelako ideologiez hitz egiteko. *Ideologia* singularrak bere baitan izan dezakeen sinplifikazioa saihesteko eta ideologiaren izaera korapilatsua azpimarratzeko erabili izan da *konplexu ideologiko* adierazpidea. Izan ere, edozein ideologia, bestelako ideologiekin txirikordatzeaz gain, bere baitan ere hainbat estratoz osatuta dago. Kroskriptyk dimentsioak nola, Bob Hodgek konplexu ideologikoen geruzak aipatzen ditu: «Ideological complexes are structured like onions, with similar patterns at every level» (Hodge, 2012, 11. or.). Eta horrez gain, autore berak ideologia oro bere baitan kontraesankorra ere izan daitekeela azpimarratzen du: «the ideological complex carries and manages the contradictions [...] by being sometimes present to consciousness, sometimes not» (Hodge, 2012, 12. or.).

«hizkuntza bat ez da armada bat duen dialekto bat besterik»¹². Izan ere, hizkuntza bat sistema gramatikal propioan eta hiztunen arteko elkar-ulermenean oinarrituko balitz soilik, suediera, norvegiera (eta beste maila batean danieraren zenbait aldaera) hizkuntza bera lirateke, eta zer esanik ez portugesa eta galiziera. Alderantziz, afrikar edo amerikar hizkuntzen banaketa egiterakoan, esaterako, ikuspegi kolonialaren ondorioz, besteak beste, hizkuntza beraren aldaeratzat hartu izan dira europarrak balira aparte-ko hizkuntza kontsideratuko liratekeen hainbat hizkuntza (ketxuaren aldaerei begiratu besterik ez dago, adibidez). Nazio-estatuaren eraikuntza ideologikoaren ondorioz, bestalde, estatuko hizkuntza nagusiaren –hots, *nazio-hizkuntzaren*– dialektotzat jo izan dira estatuko bestelako hizkuntzak ere (italieraren *dialettiak*, esaterako).

Alabaina, hizkuntza-ideologiak bestelako konplexu ideologikoekiko harremanean kokatzeak, batetik, errealitate sozial eta linguistikoaren konplexutasuna ulertzera hurbiltzen gaitu, hizkuntzei eta hiztun-komunitatei buruz pentsatzen dugun hori naturalizatzea saihestuz. Eta beste alde batetik, hizkuntza-ideologiak konstelazio ideologiko zabalago baten baitan kokatzeak ahalbidetzen digu aztertzea nola hizkuntza-ideologiek eta -praktikak hizkuntzaz gaindiko botere-harremanak sostengatzeko eta birsortzeko –edo botere-harreman horiekiko erresistentziak sortzeko– gaitasuna duten.

Izan ere, edozein hiztun, gizarteko parte den heinean, gizarteko zapalkuntza ardatz bakoitzarekiko posizio jakin batean kokatzen da, eta posizio horretatik eraikitzen ditu bere ideologiak eta praktikak. Monica Heller-ek (2008, 506. or.) azpimarratzen duen gisan, ideologia jakin bat posizio sozial jakin batetik edukitako bizipenetatik eraikia da, eta beraz, ezin du neutroa izan: «Our ideas about language(s) are [...] not neutral; we believe what we believe for reasons which have to do with the many other ways in which we make sense of our world, and make our way in it». Judith Irvine-k posizio sozial baten bizipenekin lotzeaz haratago, posizio horrek bere baitan izan ditzakeen interes moral eta politikoeekin ere lotzen du hizkuntza-ideologia, kontzeptua honela definituz: «the cultural system of ideas about social and linguistic relationships, together with their loading of moral and political interests» (Irvine, 1989, 255. or.).

Posizio sozial bat, edozein izanik ere, konplexua da, eta aurrez esan bezala, ardatz bat baino gehiagok zeharkatuko du gizarteko gorputz bakoitza. Zuria ala beltza izan, klase altukoa zen langile klasekoa, emakume zein gizon gisa irakurria, zis-a ala transa, «eroa» ala «ez-eroa», besteak beste, gizarte jakin batean izango duen lekua bat ala beste izango da. Badira aldagai batzuk, hiztun gisa beste hiztunekiko eduki daitekeen posizioari lotuak ere: gizarte jakin bateko hizkuntza nagusian ala gutxituan hitz egitea, adibidez, edo –dena delako– hizkuntza-ezagutza altuagoa ala baxuagoa izatea, «berezko» hiztun ala «hiztun berri» izatea, edo dialekto edo soziolekto jakin bat ala estandarra erabiltzea, adibidez. Unean uneko eta tokian tokiko jendearen zein norbere

12 Zita hau norena den zehazki eztabaidagai da gaur egun ere. Max Weinreich-ena da ezagutzen den zitazio idatzirik zaharrena (yiddishez «אָ דאָס אַרמיי און דאָס פֿלעס און דאָס זיידענדיקע און דאָס זיידענדיקע און דאָס זיידענדיקע און דאָס זיידענדיקע» edo «a shprakh iz a dialekt mit an armey un flot»). Zenbaitzuk, aldiz, esaldi hori bera Antoine Meillet-ek aurrez esana zuela defendatzen dute, nahiz eta bere lan idatzietan halakorik aurkitu ez (Bright, 1997). Bestetuek, azkenik, esaldia Hubert Lyautey-rena dela diote (Laponce, 2005).

ideologiaren arabera ere izango du hizkera batek autoritate gehiago ala gutxiago, eta, beraz, baita hiztun batek ere. Aldagaiak ezin konta ahala egon daitezke, eta denak dau-de elkarreraginean. Baina, edonola ere, aldagai hauek guztiek eragiten dute hiztunen hizkuntza-ideologian, eta praktiketan.

Hizkuntza-ideologiak hiztunak gizarte egituraren duen kokapena adierazten du, klase soziala, generoa, jatorria, adina edo bestelako aldagaiak bertan biltzen direlarik. Hor-tik egiten ditu bere (hizkuntz) balorazioak eta hautuak; harengandik sozialki espero dena betetzen edota, urratzen. Ideologia beraz, ez da diskurtso edota iritzi soila; ezta hiztunaren barruan gertatzen den eraikuntza kognitiboa bakarrik. Gizarte egiturare-kin du harremana eta, aldi berean, hizkuntza hautuan du isla, bien artean suertatzen den tartea betez (Altuna, 2023, 309. or.).

Horra, beraz, hizkuntza-ideologiek eskaintzen diguten beste aukera bat: gizarte, ko-munitate edo norbanako baten baitan egon litezkeen hizkuntza-ideologiak lotzea hiz-tun jakin batek –edo hiztun kategoria batek– gizarte-egituraren baitan izan dezakeen kokapen zabalagoarekin, bestelako botere-dinamika batzuekiko harremanean. Eta, zubi horren beste aldean kokatuz, hizkuntza-ideologiaren tresna kontzeptualak gizarteko bestelako zapalkuntza ardatz batzuen baitako dinamikak hizkuntzaren ikuspuntutik aztertzea ere ahalbidetzen digu.

4. HIZKUNTZA-AUTORITATEA EZBAIAN. BENETAKOTASUNA, ANONIMOTASUNA ETA ESTANDARRAREN IDEOLOGIA

Arrazaren, klasearen, generoaren, edo bestelako hainbat aldagairen arabera hiztu-nak gizartean duen lekua aldatzen den bezalaxe, kategoria sozial horiekiko gizarte-ko ideologiaren eraginez, unean uneko eta tokian tokiko hizkuntza-ideologiaren arabera aldatzen da hiztunaren kokapena, bere legitimotasunari ala autoritateari dagokionez¹³. Hizkuntza bateko hiztun ona zein den, hiztun eredu-garria nolakoa den, zein hizkun-tza-aldaera den polita, jatorria, berezia, neutroa, egokia, ala zuzena, hizkuntza-ideo-logiek ere baldintzatuko dute. Hala, hizkuntza-ideologiaren arabera egozten zaio –edo ukatzen zaio– hiztun bati autoritatea (Bucholtz, 2003, 400. or.).

Hizkuntza-aldaeren arteko hierarkizazioak eta aldaera hauetan mintzo diren hiztu-nen artekoak zurkaizten dituzten konplexu ideologikoak ugariak eta era askotarikoak izan daitezke, denak arbitrarioak izan arren. Gizarte edo komunitate jakin batean,

13 *Legitimite* eta *autoritate* kontzeptuen artean zenbait ñabardura semantiko egon litezke. Hala ere, kontzeptu baliokide edo prozesu bateratu gisa uler daitezke hiztunen edo hizkuntza-aldaeren legitimazio- edo autorizazio-prozesuak: Kathryn Woolardek edo Susan Galek autoritateaz hitz egiten dute (Gal & Woolard, 1995; Woolard, 2005, 2016), baina, legitimiteaz hitz egiten dute nagusiki, hiztun berriak euskal testuinguruan ikertu dituzten Ane Ortega eta kideek (2013, 2016), «autoritatea eta legitimitea» edo «prestigioa eta legitimitea» pareko gisa aipatuz (Ortega et al., 2016, 163. or.). Kontzeptuak modu baliokidean erabili izan dira euskal testuingurutik kanpo egindako beste ikerketa batzuen kasuan ere, Korsikako hiztun-eritzeko, esaterako (Jaffe, 2015). Nahiz eta balitekeen aurrera begira bi kontzeptuen arteko ñabardura beharrezkoa edo produktiboa izatea, artikuluko honetan modu baliokidean erabiliko dira bata zein bestea.

gizarte horren historiaren eta uneko egituraren arabera konplexu ideologiko batzuk ala besteak nagusitzen dira. Mendebaldeko gizarteetako hizkuntza-ideologiei buruzko kasu-azterketen sintesitik, Susan Galek eta Kathryn Woolardek (1995) bi konplexu ideologiko ezberdin nagusitzen direla baieztatzen dute, eta konplexu ideologiko horietako batek ala besteak egotziko diola hizkuntza, hizkuntza-aldaera, edo hiztun bati autoritatea. Bi konplexu ideologiko horietako bat *authenticity* litzateke, hots, benetakotasuna edo berezkotasunari loturiko ideologia, eta bestea, berriz, *anonymity*, hots, anonimotasunari edo neutrotasunari loturikoa (Gal & Woolard, 1995).

4.1. Benetakotasuna

Authenticity edo ‘benetakotasunaren’ ideologiaren arabera, hizkuntza edo hitz egiteko modu baten balioa komunitate zehatz batekiko duen loturan ardatzen da. *Authentikoa* izango da komunitate baten berezko adierazpide gisa identifikatu daitekeen hizkera edo hizkuntza, hots, giza-talde horren esentziaren adierazpide gisa irakurri daitekeen hitz egiteko modua: «authentic is viewed as the genuine expression of a community or of a person’s essential ‘Self’» (Woolard, 2016, 22. or.). Hizkuntza-aldaera baten funtzio nagusia, hain zuzen, indexikalitate soziala da autentikotasunaren prismatik: darabilen hizkuntza-aldaerak hiztunaren kokapen soziala adierazi ahal izatea.

Hizkuntza gutxituei balioa autentikotasunaren ideologiatik egozte, ez da zorizko fenomeno. Ideologia hau, beste guztiak bezala, historian zehar eraikia izan den ideia eta pentsaera marasma bat da, eta ez da soilik hizkuntzari buruzko ustez osatua. Nazio-estatuan oinarrituriko nazionalismoekiko erreakzioz egituratu ziren estatu-hizkuntza kategoriatik kanpo gelditu ziren hizkuntzen aldeko mugimenduak, atzerrian bezala gurean ere. XIX. mendeko modernizazio-proiektuek europar hizkuntza gutxituetako hiztunak botere ekonomiko eta politikotik baztertu zituztenean, mugikortasun soziale-rako tresna bilakatu zen hizkuntza-mudantza –eta mudantzekin batera, hizkuntzaren belaunez belauneko jarraikortasunaren etena¹⁴– (O’Rourke & Pujolar, 2013). Hizkuntza gutxituen aldeko mugimenduak, nazio-estatuetak nazionalismoak bezala, orduko European nagusitzen ziren etno-nazionalismoari buruzko ideologietan oinarritu ziren haien diskurtsoak egituratzeko. Hala, hizkuntza gutxituak defendatzeko ere argudio gisa erabili zen hiztun-komunitate ezberdinek naziotasun ezberdinak ordezkatzearen ideia (O’Rourke & Pujolar, 2013). Kulturaren biziraupenerako gako bilakatu zen orduan hizkuntzaren auzia, nazioak definitzeko ezaugarri bilakatu zen neurrian: «language thus came to define national collectivities and provided the means for their cultural reproduction» (O’Rourke & Pujolar, 2013, 50. or.). Erreproduzio kulturalerako ez ezik hizkuntza-erreproduktiorako mekanismo goren gisa ulertu zuten estatu-nazionalismoek zein hizkuntza gutxituen aldeko mugimenduek belaunaldien arteko transmisio «naturala» (Bonfiglio, 2010 apud O’Rourke & Pujolar, 2013). Hala, hizkuntza-biziberritze mugimenduek haien berezko» hiztunen populazioaren berreraikuntzan ardatzu zuten haien proiektu politikoa (O’Rourke & Pujolar, 2013).

14 Katalanaren kasua da aipatu ohi den salbuespen bakarra.

Hizkuntza gutxituen aldeko mugimendu politikoek estrategikotzat jotzen zuten hizkuntza-aldaeraren erreproduktzioa bultzatu zuten orduan, alegia, giza komunitatearen esentziaren adierazpide izango zen hizkerarena. Eta, transmisiorako egokitzat jo zuten aldaera kasu askotan izan zen komunitate horren kulturaren errepresentazio garbien eta aratzen gisa irakurria zena, hots, «the oral variety of language spoken by what had often become the most economically, politically and geographically isolated sectors of the population» (O'Rourke & Pujolar, 2013, 50. or.), edo Joshua Fishman-en hitzetan «the language variety of the noble and uncontaminated peasant» (1972, 69. or.). Izan ere, estatu-hizkuntzan hitz egiten zuen modernitateari aurre egin beharrik artikulatu zituen hizkuntza gutxituen aldeko mugimenduak, folkloristen eta erromantikoen eraginpean. Dirk Geeraerts-ek (2008), hain zuzen, *ideologia erromantikoa* deitzen dio hizkuntza gutxituak gizarte isolatu, primitibo, berezitu, esentzial eta ez kutsatu baten adierazpide gisa balioesteari.

Hizkuntza nagusiek, ordea, bestelako konplexu ideologikoetan oinarritu zuten haien autoritatea: *Argien garaiko* ideologia arrazional eta unibertsalistak baliatu zituzten haien hizkuntzen balioa goresteko.

4.2. Anonimotasuna

Anonimotasunaren konplexu ideologikoa garai bertsuko arrazionaltasunaren ideologian errotzen da, eta hizkuntzaren funtzionaltasunak¹⁵ eta neutraltasunak emango lioke, begirada honetatik, hizkuntzari balioa –eta ez, beraz, identitate partikular baten adierazpide izateak–. Gaur egungo gizartean ere, anonimotasun horretan datza hizkuntza hegemonikoen balio nagusia: denerako balio izatean, batzen eta berdintzen gaituen hizkuntza izatean, denona izan daitekeen hizkuntza izatean, eta bere demokratikotasunean, denon eskura dagoen heinean. Hizkuntza nagusiak ez du komunitate baten edo bestearen esentzia adierazten, eta, beraz, komunitate zehatz baten interes ideologikoen kargarik ez darama (Woolard, 2005).

Hain zuzen ere horretantxe datza hizkuntzaren balioa anonimotasunaren perspektibatik: karga ideologiko-identitariorik gabeko «voice from nowhere» baten eramaile izateko gaitasunean (Gal & Woolard, 1995, 134. or.). Hizkuntza-aldaera baten balioa, ondorioz, ezaugarri markatuak izan daitezkeenak ez izatean datza, hots, normatik apartekoen ezaugarrien ezabaketan, «denona» izango den eta aldi berean inorena ez den hizkuntza-aldaera baten mesedetan. Hortik anonimotasuna, instituzionalki edo demografikoki boteretsuak diren hizkuntzekin edo hizkuntza-aldaerekin lotzea: botere-guneetan definitzen da zer den politikoki markatua, eta, beraz, baita linguistikoki ere.

Alabaina, ideologia honen inguruan sorturiko praktiken bidez, hegemonia naturalizatu egiten da. Izan ere, hiztunek autoritatea egozten diote anonimotasuna darion

15 Bere *egiturazko ezaugarriengatik*, zientziarako bezalaxe literaturarako balio izatea, litzateke esaterako, funtzionaltasun horren erakusle –noski, ordura arte literatura eta zientziari buruzko tratatuak idatzi zituztenen hizkuntza izateak soilik eskain dezake gisa horretako argudioak erabiltzeko paradigma–.

hizkera –eta hitzun– bati, eta ez dutenez autoritate horren oinarri den hizkera –eta gizatalde– batzuekiko desberdinkeria identifikatzen, autoritate hori berezko eta naturalizat hartzen dute¹⁶.

4.3. Hizkera estandarraren ideologia

Maila makrogoan zein mikrogoan, behin eta berriz modu errekurtsiboan errepikatzen den dikotomia bat da anonimotasunaren eta autentikotasunaren artekoa. Hizkuntza hegemonikoen baitan ere, estandarraren ideologiak markatuaren eta ez markatuaren arteko dikotomia islatzen du: aldaera estandarrak anonimotasunetik izango luke autoritatea, eta dialektoek, izatekotan, autentikotasun balioa izango dute¹⁷.

Hizkuntza estandarraren ideologiaren arabera, hizkuntza baten aldaera jakin bat –ia beti gizarteko boteretsuenen hitz egiteko moldean, edo botere ekonomiko edo eta politiko gehien biltzen duen eremu geografikoko aldaeran oinarritua– estetikoki, moraliki eta intelektualki jasoagotzat jotzen da bestelako aldaerak baino (Piller, 2015). Alabaina, hizkuntza horretako hitzun gutxi izanik aldaera horretan egoki hitz egiteko gaitasuna, aldaera hori hobea eta noranahikoa dela sinesteak berak justifikatzen ditu desberdinkeria sozialak. Hots, hizkuntza estandarraren ideologia naturalizatzearen ondorioz, bati bidezkoa iruditu dakioke –bera estandarrean hitz egiteko gai izan ala ez– aldaera horretan hitz egiteko gai direnak gizarteko posizio pribilegiatueta egotea, aldaera hori menderatzen ez dutenak posizio horietatik kanpo geldituz (Piller, 2015).

Hizkuntza estandarraren ideologiaren arabera, bestalde, aldaera estandarra *nor-nahikoa* da, eta *edozertarako* balio du; funtzionalki unibertsala da. Errealitatean, ordea, oro har gehienbat hezkuntzan, zientzian, administrazioan, zenbait hedabidetan eta testuinguru politikoan erabili ohi da. Ondorioz, praktikan, estandarrak ez diren hizkuntza-aldaeren funtzio banaketa diglosiko bat ematen da kontrastez, eta honek aldaera horiei bestelako balioak esleitzen dizkie:

For one thing, if the standard language is the language of public life, the non-standard varieties will be appreciated as the language associated with intimacy, familiarity, the personal rather than the public sphere. For another, if the standard language functions in typically intellectual contexts (education and science), non-standard varieties will be invested with emotional values. For speakers of a dialect, the dialect is often the language of the emotions, of spontaneity, of naturalness, in contrast with the official and educational language (Geeraerts, 2003, 35. or.).

16 Pierre Bourdieu (1992, 1994) *méconnaissance* deitzen dio fenomeno horri, eta Susan Galek eta Judith Irvinek (2000), berriz, *ezabatze ideologikoa*.

17 Dikotomia berbera aurkituko dugu *lingua franca* diren hizkuntza(k) bestelakoekin alderatzen bad(it)ugu. Gaur egungo euskal gizartean –publizitate-kanpainetan, programazio kultural zein erakundeen izendapenetan, eta zer esanik ez lan-munduan, hezkuntza-sisteman zein akademian– ingelesaren hedapenarekin gertatzen dena aztertu besterik ez dago.

Estandarraren ideologia anonimotasunaren eta benetakotasunaren arteko dikotomian ardazturik eraikitzen den bezalaxe, Woolardek azaltzen du anonimotasunaren eta benetakotasunaren ideologiak ere elkarrekiko elkarreraginean eraikiak direla, hain zuzen, polarizazio-prozesu berberetik sortuak direlako: «Authenticity and anonymity are not independent one from each other, but rather are to a great extent co-constituted, meaning they are defined in relation to each other as poles on an axis of linguistic differentiation» (Woolard, 2016, 21. or.).

Gurea bezalako gizarte eleaniztun batean, hizkuntza bati edo besteari buruzko ideologiak ere elkarrekiko eraikiak dira. Nola eragiten diete, beraz, marko ideologiko hauek eta oinarrian dituzten dikotomiek euskal hiztunei, oro har, eta zertan dira estrategiko –ala oztopatzaile–, modu zabalagoan, tentsio dikotomiko horiek, hizkuntzaren biziberritzearen ikuspuntutik?

5. EUSKARA, IDEOLOGIEN ARTEAN HARRAPATUTA?

Euskarari buruz gizartean oro har aurki litezkeen ideiak eta usteak ere historian zehar eraiki eta txirikordatu diren hainbat pentsamoldetatik sortuak eta garatuak izan dira, eta euskarari zein Euskal Herriko beste hizkuntzei buruz pentsatzen duguna ez da herritar bakoitzaren bizi-esperientziatik soilik eraikia. Bizi-esperientzia horiek marko sozial eta politiko batean gertatzen dira, eta marko horrek ere definitzen du, hein batean, bizi-esperientzia horiek –hizkuntzekiko esperientziak barne– bizitzeko eta interpretatzeko modua. Hala, autentikotasunaren eta anonimotasunaren ideologiaren azterna bila daiteke hiztunen hizkuntza-bizipenetan eta haien hizkuntzei buruzko usteetan. Eta noski, ideologiok eragina dute hiztunen hizkuntza-praktiketan.

5.1. Benetakotasunaren kale itsua

Aipatutako konplexu ideologikoen euskal hiztunengan duten eragina aztertu dute hainbat lanek Euskal Herriko testuinguruan, eta oro har, esan daiteke euskara baliosteko erabiltzen den konplexu ideologikoa autentikotasunarena dela, nagusiki. Ane Ortega, Estibaliz Amorrortu, Jone Goirigolzarri, Belen Uranga eta Jacqueline Urlak, esaterako, anonimotasunaren eta benetakotasunaren ideologiaren kutsua azpimarratzen dute hiztun berriei buruz eginiko ikerketetan (Ortega et al., 2013, 2015, 2016, 2017; Urla et al., 2016). *Gazteak euskararen eszenatokian* ikerketan ere argi antzeman daiteke nola txirikordatzen den autentikotasunaren ideologia, herri ezberdinetako gazteek euskara batuaren edo dialektoen gainean dituzten uste eta iritziekin (Altuna & Hernández, 2021). Eta berriki, autentikotasunaren ideologiarekin lerrotatzen diren ideiak atzeman ditu Jaime Altunak (2023) ere Gipuzkoako hainbat herritako gazte-txoekin egindako ikerketan.

Autentikotasunaren ikuspuntutik, estandarrarekiko kontrapuntuan, euskalkiak jotzen dira *autentikotzat*, eta beraz, euskalkidun hiztunei egozten zaie legitimitaterik altuena. Eta oharkabean, bestelako amalgama bat ere egin ohi da: euskalkidun hiztunak *berezko* hiztun gisa irakurri ohi dira, hots, euskara etxean ikasi duten hiztun gisa, eta

batuadun hiztunak, aldiz, hiztun berri gisa –nahiz eta, bistan da, bi ezaugarrien arteko lotura ez den *berezkoa* eta hiztun asko dauden sasi-arau hori hautsiko luketenak– (Artetxe & Bereziartua, 2023). Honenbestez, autentikotasunaren ideologia *ama-hizkuntzaren*¹⁸ ideologiarekin txirikordatzen da. Euskalkiak ez baitira soilik ikas daitezkeen hizkerak, eta bai baitute zerbait jatorrizko hiztunen *berezko* ezaugarritik ere:

Partaideen iritiz, euskalkiek aberastasuna ematen diote euskarari eta hizkuntzaren aldaerarik benetakoena dira; batua, berriz, beharrezko ikusten dute, baina artifizialago, ez «benetako euskara». Hainbat hiztun berrik euskalkian mintzatzen direnei «inbidia» dietela adierazi dute eta horrek argi erakusten digu euskalkiak hiztun berriek nahi dituzten baina batzuentzat eskuraezinak diren balioekin identifikatzen dituztela (Ortega et al., 2016, 163. or.).

Ama-hizkuntzaren konplexu ideologiko honen arabera, hiztunen lehen hizkuntza ez dena ezingo da inoiz menperatu lehen hizkuntza bezain ondo (Skutnabb-Kangas & Phillipson, 2012)¹⁹, eta pentsaera hau autentikotasunaren ideologiarekin gurtzatuz, hiztun *autentikoa* euskara etxean jaso duena baino ezin da izan. Hala, Esti Amorrortu eta bere kideek (2017) ikusi dute haien ikerketetan euskara etxean ikasi ez izanak eragina duela hiztun berriek senti dezaketean legitimitatean. Ipar Euskal Herriko bertso-munduko gazteen artean ere ikusi ahal izan da nola irakurriak diren sailetik aparteko gisa jatorrizko hiztunak ez diren bertsolariak, eta nola jotzen den jatorrizko hiztun batena baino problematikoagotzat edo «ez hain natural» gisa haien euskararekiko lotura bera (Artetxe, 2019, 61. or.). Are, lan berean ikusi da zenbait hiztun berriren kasuan, hiztun zaharraren *passinga*²⁰ edukita ere (Artetxe, 2020, 228. or.), hizkuntza-gaitasun eta -erabilera altua izanik ere, bertso-mundua bezalako espazio sozial batean haien hiztun-legitimitasuna zailtzan jarria izan daitekeela, hain zuzen, hizkuntza etxetik jaso ez dutelako²¹. Eta Jaime Altunak (2023, 329. or.) ere hainbat gaztek euskara etxean ikasi ez izana erabilerarako oztopo gisa bizi dutela jaso ahal izan du. Haizea kontra izanik ere, hizkuntza gutxituetako hiztun berriek «often engage in pursuit of recognition as ‘authentic’ speakers» (O’Rourke & Pujolar, 2013, 57. or.). Baina, inork hiztun berri izanagatik benetakotasuna *irabaziz* gero ere, salbuespen gisa irakurria izateko arriskua du.

18 *Ama-hizkuntza* kontzeptua problematikoa izanik ere metafora biologizista gisa, hala erabiliko da hemen, konstruktio ideologiko bat izendatzeko erabili izan delako literatura akademikoan, eta hain zuzen, baliagarria izan litekeelako metafora horrek izan ditzakeen mugak berak bistaratzeko.

19 Tove Skutnabb-Kangas eta Robert Phillipson (2012, 453. or.) adierazten dute *ama-hizkuntza* modu desberdinetara defini daitekeela: izan lehenik ikasi den hizkuntza gisa, ondoen menperatzen den hizkuntza gisa, gehien erabiltzen den hizkuntza gisa ala identifikazio-hizkuntza gisa. Ama-hizkuntzaren ideologia, gurean, *jatorrizko* hiztun izatearekin lotzen da, hots, euskara etxean ikasi izanarekin.

20 *Passing* deitu izan zaio nagusiki Amerikako Estatu Batuetan pertsona arrazializatuak zuri gisa irakurriak izatearen esperientziari. Gerora *passing* terminoaren esanahia zabaldu egin da, ikuspuntu intersektional batetik arrazari dagozkion esperientziari ez ezik bestelako bazterreko identitateen inguruko esperientziak ere adierazteko, izan kasta, klase soziala, generoa, aniztasun funtzionala, edo bestelako edozein kategoria (Guzmán & Platero, 2012; Renfrow, 2004).

21 Paula Kasaresek *ama-hizkuntza* bera definitzen du konstruktio ideologiko gisa, hain zuzen «hizkuntzaren eta hiztunaren artean harreman zehatzak (naturalak) aurreikusi eta lehenesten baititu» (Kasares, 2017, 34. or.).

Hala, badirudi euskara eta euskarazko hizkerak autentikotasunaren ideiatik balioesteak²² hainbat muga jartzen dizkiela hiztun berriei –besteak beste–, euskal hiztun gisa legitimitate eskas horrek eragina du hizkuntza-praktiketan: «Hiztun batzuk ez dira sentitzen benetako euskaldunak eta ez dute konfiantzarik zenbait egoeratan eta hiztun jakin batzuekin euskara erabiltzeko» (Ortega et al., 2016, 164. or.).

Orainsu arte, bederen, hizkuntza gutxituen aldeko mugimenduek zein hizkuntza gutxituen berreskurapenerako diseinatutako hizkuntza-plangintzek, jatorrizko hiztunengan jarri izan dute arreta, gurean bezala Europako beste testuinguru batzuetan ere (Ramallo & O'Rourke, 2014, 22. or.), hizkuntzen biziberritzeari buruzko narratibak berezko hiztun edo «hiztun tradizionaletan» ardaztuz²³. Autentikotasunaren ideologiatik, jatorrizko hiztuna benetakotasunaren erreferente gisa hartzeak (Ortega et al., 2016), ordea, baditu bere eraginak, bai hiztunen hizkuntza-praktiketan, eta baita aurrera begirako plangintzen eta hizkuntza-politiken diseinuan ere.

Autentikotasunaren ideologiak kale itsu batera eramán gaitzake, gaur egungo testuinguruan hizkuntzaren biziraupena zaildu egiten baitu hiztun berriei *de facto* berezko hiztunei baino autoritate eskasagoa egozteak. Alabaina, ez dirudi euskara autentikotasunaren ideologiatik balioestea estrategikoa zaigunik ez bidezkoatasunaren ikuspegitik ez eta bideragarritasunaren ikuspegitik ere. Izan ere, gaur egungo testuinguru soziolinguistikoan ere «autentikotasun eredu hori betetzen ez duten hiztun berriak beharrezkoak dira» (Altuna, 2023, 327. or.). Eta beraz, hiztun horiei legitimitatea emango dieten ideologiak eta diskurtsoak behar dira. Baina, anonimotasunaren edo eta estandarraren ideologiak balio ote dezakete horretarako?

5.2. Anonimotasunaren eta estandarraren ideologiaren herrena

Badirudi, benetakotasunaren kale itsu horretatik ihesi, eta garai modernoetako identitate etnolinguistikoen kontzeptzioekiko deserosotasunez, beharbada, erakundeetatik zein hizkuntzaren biziberritze mugimenduko eragileetatik abiatutako zenbait euskararen aldeko kanpaina, hain zuzen ere, *anonimotasunaren* balioan oinarrituz diseinatzen hasiak direla. Hala, Onintza Legorbururen lanek erakutsi dute, esaterako, 2000. urtetik aitzina euskara anonimotasunaren ideologiatik balioesteko joera handiagoa hartu dutela euskararen erabilera bultzatzeko kanpainek (Legorburu, 2022a).

22 *Gazteak euskararen eszenatokian* ikerketan ere argi antzeman daitezke nola txirikordatzen den autentikotasunaren ideologia, herri ezberdinetako gazteek ere euskara batuaren edo dialektoen gainean dituzten uste eta iritziekin (Altuna & Hernández, 2021).

23 Arlo akademikoak ere badu horretan eragina. Euskal soziolinguistikaren eraginean, paradigma Fishmaniarren eta Sanchez Carrión «Txepetx»-en ikuspegiak hizkuntzaren biziberritze prozesua euskararen «berezko» hiztunengan ardaztu izan da azken hamarkadetara arte, hiztun berriak beharrezko trantsizio gisa ulertuz, haien balio estrategikoa familia bidezko transmisio bidez euskarazko jatorrizko hiztunak sortzea izanik, nagusiki (Artetxe, 2020).

Izan ere, Woolardek testuinguru katalanerako idatziak gurera ekarriz, «ethnic authenticity and identity value contributed to its survival under conditions of subordination. But now this value is in conflict with the universalistic ideology of anonymity that typically characterizes hegemonic public languages» (Woolard, 2005, 18. or.).

Alta, «the paradox [...] is that they are marked efforts to make a language the unmarked choice» (Woolard, 2005, 18. or.). Pentsa liteke *anonymity* balioan zaila zaigula hizkuntza nagusiekin lehiatzea, testuinguru soziolinguistikoa honetan noranahikotasunean ezinbestean izango baitira gaztelania edo frantses estandarra euskara batua baino autoritate gehiagokoak, eta, beraz, euskara *markatuagoa*.

Euskararen kasuan, aldaera estandarra eraikia izan da, eta ez da, berez, hiztun-talde jakin batekin zuzenean identifikagarria den aldaera bat²⁴. Zentzu horretan, anonimotasun-balioarekin bat egin lezake, itxuraz; «but the project of creating linguistic anonymity often involves ideological more than linguistic engineering» (Woolard, 2005, 7. or.). Rosina Lippi-Green-ek (2006) dioen bezala, estandarraren ideologia nagusitzen da, batez ere, idealizatutako ahozko hizkera abstraktu eta aldagaitzaren ideia boterean dauden instituzioek inposatzen eta mantentzen dutelako.

Euskal Herrian, hezkuntza-sisteman egindako aurrerapenak eta nazio mailako he-dabideen sorrerak hizkuntza estandarraren sozializazioan eragin nabarmena izan dutela ukatu gabe, ezin esan liteke euskarak aski botere instituzionalik duenik halakorik bermatzeko. Euskarazko estandarrak ez du, beraz, gaztelania edo frantses estandarrak duen autoritate-mailarik anonimotasunaren planoan. Ortegak eta bere kideek ondorioztatu ahal izan duten gisan, batuari buruzko iritziak askotarikoak dira hiztun berri gazteen artean, baina, nahiz eta oro har onartua den «baliagarria dela» euskara estandarra jakitea, «askoren ustez ez da “benetako euskara” eta honako adjektiboak lotzen dizkiote euskara batuari: eta *artifiziala, hotza, aspergarria, plastikozkoa, liburukoa, formala* edo *akademikoa* dela diote» (Ortega et al., 2016, 154.-155. or.).

Oraingoz, beraz, euskararen aldaera estandarrak ez du anonimotasunaren ideologiatik erdarak bezain balioetsia izateko gaitasunik, eta euskararen balioespina nagusiki autentikotasunaren ideologiatik dator. Hala, Altunak dioen gisan, «zailtasunak ditugu funtzionaltasunean eta neutraltasunean oinarritutako anonimotasunaren ideologia euskararekin lotzeko» eta «euskarak jarraitzen du identitate jakin bat adierazteko gaitasunarekin lotuta, benetakotasunaren ideologian sustraitua» (Altuna, 2023, 330. or.).

Euskara *noranahiko* eta *denon hizkuntza* gisa balioetsiko lukeen konplexu ideologikoak ez du, beraz, lur aski emankorrik gaur egungo gure errealitate sozial, politiko

24 Atal honek eztabaidarako emango luke. Izan ere, «euskara batua» gisa arautua dauden elementu gramatikalak urriak dira, eta idatzizko eta batez ere ahozko euskara batuan erraz antzeman daitezke eremu geografiko batekin identifikagarriak diren elementu lexiko zein fonologikoak, besteak beste. Zenbait hiztunen pertzepzioan euskara batuaren neutrotasuna ez da, beharbada, auzo-hizkuntzetakoa bezainbestekoa.

eta linguistikoan. Zorionez, errealitate hau askotarikoa eta konplexua izateaz gain, etengabeko eraldaketan ere bada, eta ideologia berriak sortu, azaleratu eta garatzeko aukerak egon badaude.

5.3. Ideologiak etengabeko aldatetan

Orain arte aipatutako konplexu ideologikoez ez diete erabat erantzuten gaur egungo hizkuntzaren biziberritze beharrei: autentikotasunak hiztun profil jakin bat goren du, hiztun berriei –besteak beste– legitimotasunerako oztupoak jarritz, eta gaur egungo testuinguru soziopolitiko eta linguistikoak ez du euskara anonimotasunaren ideologiatik balioesteko aukera argirik eskaintzen. Inguratzen gaituzten –eta gure baitan ditugun– hizkuntza-ideologiak konplexu ideologiko horien prismetatik soilik aztertzea, ordea, sinplifikazio handia litzateke. Leku edo komunitate batean, une jakin batean, hainbat konplexu ideologiko egon daitezke aldi berean zirkulazioan eta «zaila [da] erabat partekatua edo homogeneoa den hizkuntza-ideologia bakarria topatzea» (Altuna, 2023, 313. or.)²⁵. Gure testuinguruan, autentikotasunaren eta anonimotasunaren ideologiak, konplexu ideologiko indartsuak izanik ere, ez dira zirkulazioan dauden ideologia bakarrak, eta horrez gain, etengabeko eraldaketan daude.

Euskal Herriko gune soziolinguistiko ezberdinetan, testuinguru desberdinetan, edo adin-tarte desberdinetan, esaterako, errealitatearen irakurketa ezberdinak egiten dira, hizkuntzei dagokienez ere. Hala, testuinguru ezberdinek baldintza ezberdinak eskaintzen dituzte hizkuntzen gaineko ideologiak birsortzeko, ala auzitan jartzeko (Altuna, 2023, 308. or.).

Aldaketa sozial, politiko eta historiko orokorrek ere eragina dute, ezinbestean, hizkuntza-ideologietan ere, eta bestelako testuinguruetan bezalaxe gurean, modernitateko ideologietan sustraitutako konplexu ideologiko hauek zalantza jartzen ari dira post-modernitatearekin batera iritsi zaizkigun identitate pertsonal zein kolektiboaren eta hizkuntz(ar)en arteko lotura ulertzeko modu berriak (Heller, 1999; Pujolar & González, 2013; Trenchs-Parera et al., 2014).

Euskal Herriko testuinguruan egin diren ikerketek erakusten dute hizkuntza-ideologiak eraldaketa-prozesuan daudela, eta dagoeneko, adibidez, «euskaldun berri» eta «euskaldun zahar» identitateak ez direla berdin ulertzen, edo are, auzian jarriak direla gazte belaunaldi berriengandik: «Egiaztatu dugunez, deskribatu ditugun identitateak, baita haien euskarri diren ideologiak edo balioak ere, nahiko hedatuta daude oraindik; hala ere, auzitan jartzen direla ere barruntatu ditugu, gizartearen sektore batzuetan eta kontu batzuetan behinik behin» (Ortega et al., 2016, 183. or.). Eta Altunak dion gisan, «Agian, ‘euskaldun zahar’ / ‘euskaldun berri’ dikotomia gainditzeko gogoak

25 Hala, gazteekin berriki egindako ikerketek erakusten dute autentikotasunaren eta anonimotasunaren ideologiez gain badaudela beste hainbat ideologia zirkulazioan. Altunak, esaterako, ideologia ekolinguistikoa, liberalismoa linguistikoa, hizkuntza-abertzaletasuna eta hizkuntza-individualizazioa identifikatu ditu gazteekin egindako ikerketan (Altuna, 2023).

adierazten du euskal hiztunekin lotutako legitimitate eta autoritateak aldatzen ari direla. Eta, agian, euskal hiztunen gizarte posizio berri baten adierazgarri dira» (Altuna, 2023, 334. or.).

Aldaketa hauek bezalaxe beste hainbat ari dira gertatzen etengabe, hainbat praktika-komunitate, eskola, auzo zein erakundetan, eta ideologia berriok hizkuntza-sozializazio berrietarako aukera eskaintzen dute. Hizkuntza-ideologia ezberdinen geruza artean bizi diren hiztunek hiztunen eta hizkeren legitimitateak unean uneko eta tokian tokiko negoziazioen bidez ebatziko dituzte, eta legitimaziorako baldintza eta irizpideen araberrako hizkuntza-praktikak eta hizkuntzei buruzko diskurtsoak garatu. Izan ere, «Language ideologies are therefore also reflected in the linguistic choices speakers make and the languages they use in daily intercourse, as well as in the content of what they articulate» (Dunmor, 2014, 38. or. apud Altuna, 2023, 311. or.).

Honenbestez, alde batetik, gaur egungo hiztunen hizkuntza-praktikak ulertzeko, ezinbestekoa izango zaigu etengabeko aldaketan eta espazio berean zirkulazioan dauden hizkuntza-ideologiak ulertzea. Eta auzitan jarriak diren edo sortzen ari diren gaur egungo hizkuntza-ideologiaren aniztasun hori bera ezagutzeak, bestalde, heldulekuak eskain diezazkiguke gure hizkuntza-praktikak ulertzeko ez ezik, horietan eragiteko ere.

6. AZKEN GOGOETA ETA ALDARRIA

Hizkuntza-ideologiaren inguruko ikerketek ildo emankorra osatu dute atzerrian bezala gurean ere, artikuluan zehar azpimarratu den gisan. Eta gure testuinguruan ikerketa-ildo hau indartzeak, sendotzeak eta zabaltzeak aukera emango liguke, modu zabalean, hizkuntza-praktiken eta gure gizarteko egiturazko botere-harremanen arteko loturak aztertzeak (izan hizkuntzen eta hizkeren arteko hierarkiekin loturiko botere-harremanak, edo eta gizarteko bestelako zapalkuntza ardatz batzuen baitako botere-harremanak).

Modu zehatzagoan, hizkuntzen, hizkeren eta hiztunen arteko hierarkizazioak eta legitimitasun auziak aintzat hartuz, eta gaur egun nagusitzen diren konplexu ideologikoen hizkuntzaren biziberritze-prozesurako helduleku amarrutsuak eskaintzen dituztela ikusirik, estrategikoa izan liteke, alde batetik, konplexu ideologikoen hauen desnaturalizazioan eragitea. Izan ere, Woolardek azpimarratzen du bai konplexu batek zein besteak errealitatean eragiteko gaitasuna badute, hain zuzen, naturalizazio-prozesu bat gertatu delako dela, hots, hizkuntza-forma bat ala beste legitimitzat jotzea errealitate «natural» edo «berezkotzat» gisa irakurtzen dela: «Each of these two ideological frameworks takes a linguistic form to be rightfully authoritative because it is the natural, unmediated expression of a state or social life in the world» (Woolard, 2016, 30. or.). Hala, ikertzaile gisa naturalizazio-prozesu hori aztertzeak berak egin diezaioke ekarpena bestelako eragile sozialekin batera burutu beharreko desnaturalizazio-prozesu bati: *natural* eta *berezkotzat* ditugun hitz egiteko moduen eta kategoria sozialen arteko lotura horiek nola eraiki diren eta nola sendotzen diren ulertzeak berak ezinbestean azaleratzen du ideologion izaera eraikia eta politikoa (Bucholtz & Hall, 2004).

Beste alde batetik, hizkuntza-ideologiaren ikerketa ildo zabaltzeak eta hedatzeak ere aukera emango luke Euskal Herriko testuinguru ezberdinetan sortzen, eraldatzen eta garatzen ari diren hizkuntza-ideologiak aztertzeke eta prisma horretatik hizkuntza-praktikak modu sakon eta konplexuagoan ulertzeke. Are, beharbada, hizkuntza-ideologiak «aurrera begirako aldaketen inguruko pista batzuk eman ditzakete» (Altuna, 2023, 310.-311. or.). Gainera, testuinguru ezberdinetako hizkuntza-ideologiaren aniztasuna ikertzeak aukera eskain dakiguke konplexu ideologiko berriak identifikatzeko, konplexu ideologikoen arteko elkarreraginak ulertzeke, eta ulermen horretatik hizkuntzaren biziberritzerako une eta gune jakinetarako egokiak izan daitezkeen diskurtsoak sortzeke eta garatzeko. Edonola ere, eragin nahi dugun guneko eta uneko errealitatea ondo ezagutzea ezinbestekoa zaigu, baita hizkuntza-ideologiei dagokienez ere, diseinatutako hizkuntza biziberritzeke politikak eta hizkuntza-plangintzak eraginkorrak izan daitezken.

Jakin badakigu testuinguru sozial eta politikoan gertatzen ari diren aldaketek gure bizimoduan eragina izan duten eta izango duten gisan, eragina dutela eta izango dutela hitzunen eta hitzun potentzialen hizkuntza-ideologietan ere. Eta aldaketa hori ulertzea ere ezinbestekoa izango da gure errealitate linguistikoa ulertzeke ez ezik aurrera begirako hizkuntza-politika eraginkorrak diseinatzeke eta aurrera eramateke ere, izan maila makroan zein maila mikroan. Izan ere, hizkuntza-ideologietan gertatzen ari diren aldaketa hauek euskararen biziberritzean interesa duten erakunde- eta gizarte-mugimenduen berariazko esku-hartzearekin edo esku-hartzerik gabe gertatuko dira, baina, ziurra dena da testuinguru zabalagoan gertatzen ari diren prozesu makro-sozialen eragina izan izango dutela.

Ikertzaile gisa ere, hizkuntza-ideologiak ikertu ala ez, gure ikerketa-praktiken bidez sortzen edo birsortzen ditugun hizkuntza-ideologiez kontziente izatea bera ere beharrezkoa da. Urlaren bidetik, Jone Miren Hernándezek, Olatz Olasok eta Iñaki Martínez de Lunak dioten moduan, «it cannot be forgotten that the interpretations and theories put forward by researchers will permeate society and be grafted onto social discourses and thus impact upon linguistic reality» (Hernández et al., 2006, 103. or.). Izan ere, Altunak dion gisan, hitzunen hizkuntza-ideologietan askotariko agentziak daude elkarreraginean:

Hiztunaz gain, bere testuinguru hurbila, hizkuntza politika zein hizkuntza plangintzarekin lotutako eragileak, soziolinguistek edota hizkuntzaren gaineko ikerlariak... denon agentzia ikus daiteke hizkuntza-ideologiaren azarnetan. Horregatik, hizkuntza-ideologiak aztertzeke hitzunaren ikuspegia gainditu behar da eta hitzun horren diskurtsoetan «parte hartzen» duten eragile ezberdinak antzematen saiatu behar dugu (Altuna, 2023, 310. or.).

Susan Galen (2002, 197. or.) hitzak berrartuz, ordea, zailena, beharbada, ikertzaile gisa geure hizkuntza-ideologia propioez jabetzea da: «Both ordinary people and social scientists –linguists, sociologists, anthropologists– hold language ideologies. We can only hope to describe and understand some of these, and not always our own».

Azkenik, hizkuntza-ideologien ikerketa-ildoan sakontzeak hizkuntza-ideologien kontzeptua bera eta berau ulertzeko dugun modua etengabe doitzen eta garatzen lagunduko liguke, hots, hizkuntza-ideologiak tresna analitiko gisa zorrozten, ikerketa-lan gero eta interesgarriagoak ez ezik gero eta baliagarriagoak ere egin ahal izateko.

7. ERREFERENTZIAK

- Altuna, J. (2023). *Hizkuntzaren funanbulistak. Hizkuntza-sozializazioa kirol eremuan adin eta generoan ardaztuta* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/62640>
- Altuna, O. & Hernández, J. M. (2021). Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 120, 29-45.
- Amorrortu, E., Ortega, A. & Goirigolzarri, J. (2017). Euskararen hiztun aktibo bihurtzeko gakoak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 104, 11-49.
- Artetxe, M. (2019). Hiztun berriak eta bertso-mundua. Legitimatuta a(ha)la auzitan jarri? *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 109, 45-72.
- Artetxe, M. (2020). *Ipar euskal herriko bertso-eskoletako gazteen hizkuntza ibilbideak. Gazte identitateak, hizkuntza mudantzak eta legitimazio prozesuak* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/45422>
- Artetxe, M. (2023). *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian IV. 30 urte eta gero zer?* Lasarte-Oriako Udala.
- Artetxe, M. & Bereziartua, G. (2023). *Gaztelania eta frantsesarekiko desoreka euskal gazteen eguneroko hizkerarako adierazkortasunean: Faktore horien eragina Donostia eta Baionako unibertsitate-ikasleen hizkuntza-hautuan* [Txosten argitaragabea]. Euskaltzaindia-Mintzola.
- Bauman, R. & Sherzer, J. (1975). The ethnography of speaking. *Annual Review of Anthropology*, 4(1), 95-119.
- Bourdieu, P. (1992). *Les règles de l'art. Genèse et structure du champ littéraire*. Seuil.
- Bourdieu, P. (1994). *Raisons pratiques*. Seuil.
- Bourdieu, P. (1980). *Le sens pratique*. Editions de Minuit.
- Bright, W. (1997). Note. *Language in Society*, 26, 469-470.
- Bucholtz, M. (2003). Sociolinguistic nostalgia and the authentication of identity. *Journal of Sociolinguistics*, 7(3), 398-416. <http://dx.doi.org/10.1111/1467-9481.00232>
- Bucholtz, M. & Hall, K. (2004). Theorizing identity in language and sexuality research. *Language in Society*, 33(4), 469-515. <http://dx.doi.org/10.1017/S0047404504334020>
- Eagleton, T. (1991). *Ideology: an introduction*. Verso.
- Eagleton, T. (2014). *Ideology*. Routledge.
- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua & Euskararen Erakunde Publikoa. (2013). *VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021*. Euskararen Adierazle Sistema.
- Fishman, J. A. (1972). *Language and nationalism: two integrative essays*. Newbury House.
- Friedrich, P. (1989). Language, ideology, and political economy. *American Anthropologist*, 91(2), 295-312. <http://dx.doi.org/10.1525/aa.1989.91.2.02a00010>

- Gal, S. (1989). Language and political economy. *Annual Review of Anthropology*, 18, 345-367. <http://dx.doi.org/10.14318/hau6.3.021>
- Gal, S. (2002). Language ideologies and linguistic diversity: Where culture meets power. In L. Keresztes & S. Maticsák (arg.), *A Magyar Nyelv Idegenben, Debrecen, Debreceni Egyetem Finnugor Nyelvtudományi Tanszéke* (197.-204. or.). A Jyväskyläi Egyetem Magyarságtudományi Intézete és a Debreceni Egyetem Finnugor Nyelvtudományi Tanszéke.
- Gal, S. & Irvine, J. T. (2000). Language ideology and linguistic differentiation. In P. Kroskritt (arg.), *Regimes of language* (35.-84. or.). School for American Research.
- Gal, S. & Woolard, K. (1995). Constructing languages and publics. *Pragmatics. Quarterly Publication of the International Pragmatics Association (IPrA)*, 5(2), 129-138. <http://dx.doi.org/10.1075/prag.5.2.01gal>
- Geeraerts, D. (2003). Cultural models of linguistic standardization. In R. Dirven, R. Frank & M. Pütz (arg.), *Cognitive models in language and thought. Ideology, metaphors and meanings* (25.-68. or.). Mouton de Gruyter. <https://doi.org/10.17684/i3a36en>
- Geeraerts, D. (2008). The logic of language models: rationalist and romantic ideologies and their avatars. In K. Süselbeck, U. Mühlischlegel & P. Masson (arg.), *Lengua, nación e identidad. La regulación del plurilingüismo en España y América Latina* (43.-73. or.). Ibero-Amerikanisches Institut P.K.
- Goirigolzarri, J. (2015). *Euskal Autonomia Erkidegoko alderdi politikoen hizkuntza politikak eta hizkuntza ideologiak 1980-2012: Eusko Legebiltzarreko Hauteskunde programen azterketa* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. Deustuko Unibertsitatea.
- Guzmán, P. & Platero, R. (L.). (2012). Passing, enmascaramiento y estrategias identitarias: diversidades funcionales y sexualidades no-normativas. In R. (L.) Platero (arg.), *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada* (125.-159. or.). Bellaterra.
- Heller, M. (1999). Alternative ideologies of la francophonie. *Journal of Sociolinguistics*, 3(3), 336-359. <http://dx.doi.org/10.1111/1467-9481.00082>
- Heller, M. (2008). Language and the nation-state: challenges to sociolinguistic theory and practice. *Journal of Sociolinguistics*, 12(4), 504-524. <http://dx.doi.org/10.1111/j.1467-9841.2008.00373.x>
- Hernández, J. M., Martínez de Luna, I. & Olaso, O. (2006). Theoretical, social and political discourses on the Basque language. In M. J. Azurmendi & I. Martínez de Luna (arg.), *The case of the Basque: past, present and future* (103.-116. or.). Soziolinguistika Klusterra.
- Hernández, J. M. & Altuna, J. (2017). Gazteak euskararen jolastokian. In J. Goirigolzarri, X. Landabidea & I. Manterola (arg.), *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen* (53.-70. or.). Udako Euskal Unibertsitatea.
- Hernández, J. M. & Altuna, J. (2020). Gazteak eta euskararen erabilera: egin gabeko galderak. *Euskera Ikerketa Aldizkaria*, 65(2), 445-479. <http://dx.doi.org/10.59866/eia.v2i65.34>

- Hernández, J. M. & Santamaría, A. (2021). *Do it yourself*etik planifikaziora. Euskal hiztun gazteak eta berreskurapenaren auziak. *Fontes Linguae Vasconum: Studia et Documenta*, 132, 349-374. <http://dx.doi.org/10.35462/flv132.4>
- Hodge, B. (2012). Ideology, identity, interaction: contradictions and challenges for critical discourse analysis. *Critical Approaches to Discourse Analysis across Disciplines*, 5(2), 1-18.
- Irvine, J. T. (1989). When talk isn't cheap: Language and political economy. *American Ethnologist*, 16(2), 248-267. <http://dx.doi.org/10.4324/9780429496288-17>
- Jaffe, A. (2015). Defining the new speaker: theoretical perspectives and learner trajectories. *International Journal of the Sociology of Language*, 231, 21-44. <http://dx.doi.org/10.1515/ijsl-2014-0030>
- Järlehed, J. (2008). *Euskaraz: lengua e identidad en los textos multimodales de promoción del euskara, 1970-2001* [Doktore-tesia, Göteborgs Universitet/University of Gothenburg]. GUPEA. <https://gupea.ub.gu.se/handle/2077/28473>
- Kasares, P. (2017). Euskararen transmisioa: berrikuspena hizkuntza-sozializazioaren paradigmatik. In J. Goirigolzarri, X. Landabidea & I. Manterola (arg.), *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen* (27.-51. or.). Udako Euskal Unibertsitatea.
- Kroskirty, P. (2004). Language ideologies. In A. Duranti (arg.), *A companion to linguistic anthropology* (496.-517. or.). Blackwell.
- Laponce, J. (2005). La gouvernance du français au Canada en cinq ou six lois. In J. P. Wallo (arg.), *La gouvernance linguistique: le Canada en perspective* (3.-17. or.). Les Presses de l'Université d'Ottawa.
- Legorburu, O. (2018). Genero rolek hitanoaren erabileran izan duten eragina: Antzuo-lako herritarren diskurtso eta praktikak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 109, 111-138.
- Legorburu, O. (2022a). Euskararen esanahia(k): euskalgintzako testu multimodalen azterketa genero perspektibatik (1960-2018). *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 122, 263-295.
- Legorburu, O. (2022b). *Euskararen esanahia(k): euskalgintzako testu multimodalen azterketa genero perspektibatik (1960-2018)* (Berdintzen, 2). Eusko Jaur-larritza.
- Lippi-Green, R. (2006). Language ideology and language prejudice. In E. Finegan & J. R. Rickford (arg.), *Language in the USA* (289.-304. or.). Cambridge University Press.
- Manterola, I. & Berasategi, N. (2011). *Hizkuntza gutxituen erronkak*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- O'Rourke, B. & Pujolar, J. (2013). From native speakers to «new speakers» –problematising nativeness in language revitalization contexts. *Histoire Épistémologie Langage*, 35(2), 47-67.
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Urla, J. & Uranga, B. (2013). Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: «nolako euskalduna naiz?». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 87-88, 151-170.
- Ortega, A., Urla, J., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Uranga, B. (2015). Linguistic identity among new speakers of Basque. *International Journal of the Sociology of Language*, 231, 85-105. <http://dx.doi.org/10.1515/ijsl-2014-0033>

- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Urla, J. (2016). Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak. *Administrazioa Euskaraz*, 97, 20-21.
- Ortega, A., Amorrortu, E. & Urla, J. (2017). Basque standardization and the new speaker: political praxis and the shifting dynamics of authority and value. In P. Lane, J. Costa & H. De Korne (arg.), *Standardizing minority languages. Competing ideologies of authority and authenticity in the global periphery* (32.-54. or.). Routledge.
- Piller, I. (2015). Language ideologies. In K. Tracy, T. Sandel & C. Ilie (eds.), *The International Encyclopedia of Language and Social Interaction* (1.-10. or.). <https://doi.org/10.1002/9781118611463.wbielsi140>
- Pujolar, J. & González, I. (2013). Linguistic ‘mudes’ and the de-ethnicization of language choice in Catalonia. *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 16(2), 138-152. <http://dx.doi.org/10.1080/13670050.2012.720664>
- Ramallo, F. & O’Rourke, B. (2014). Perfils de neoparlants de gallec. *Digithum*, 16, 18-24. <http://dx.doi.org/10.7238/d.v0i16.2300>
- Renfrow, D. (2004). A cartography of passing in everyday life. *Symbolic Interaction*, 27(4), 485-506. <http://dx.doi.org/10.1525/si.2004.27.4.485>
- Schieffelin, B., Woolard, K. & Kroskrity, P. (2012). *Ideologías lingüísticas: práctica y teoría*. Catarata.
- Silverstein, M. (1979). Language structure and linguistic ideology. In P. Clyne, W. Hanks & C. Hofbauer (arg.), *The elements* (193.-248. or.). Chicago Linguistic Society.
- Skutnabb-Kangas, T. & Phillipson, R. (2012). ‘Mother tongue’: The theoretical and sociopolitical construction of a concept. In U. Ammon (arg.), *Status and function of languages and language varieties* (450.-477. or.). De Gruyter.
- Trenchs-Parera, M, Larrea, I. & Newman, M. (2014). La «normalització» del cosmopolitisme lingüístic entre els joves del segle XXI? Una exploració de les ideologies lingüístiques a Catalunya. *Treballs de Sociolingüística Catalana*, 24, 281-301.
- Urla, J. (1993). Cultural politics in an age of statistics: numbers, nations, and the making of Basque identity. *American Ethnologist*, 20(4), 818-843. <http://dx.doi.org/10.1525/ae.1993.20.4.02a00080>
- Urla, J. (1995). Outlaw language: creating alternative public spheres in Basque free radio. *Pragmatics. Quarterly Publication of the International Pragmatics Association (IPrA)*, 5(2), 245-26. <http://dx.doi.org/10.2307/j.ctv11smp8b.13>
- Urla, J. (1999a). El nuevo ritmo del euskara: identidad y mestizaje en la obra de Negu Gorriak. In *VIII Congreso de Antropología: patrimonio cultural y museología* (155.-164. or.). Asociación Galega de Antropoloxia.
- Urla, J. (1999b). Basque language revival and the popular culture. In W. A. Douglass, K. Urza, L. White & J. Zulaika (arg.), *Basque Cultural Studies* (44.-61. or.). University of Nevada Press.
- Urla, J., Amorrortu, E., Ortega, A., Goirigolzarri, J. & Uranga, B. (2016). Authenticity and linguistic variety among new speakers of Basque. In V. Ferreira & P. Bouda (arg.), *Language documentation and conservation in Europe* (1.-12. or.). University of Hawai’i Press.

- Urla, J., Amorrortu, E., Ortega, A. & Goirigolzarri, J. (2018). Basque standardization and the new speaker: political praxis and the shifting dynamics of authority and value. In P. Lane, J. Costa & H. J. De Korne (arg.), *Standardizing minority languages: competing ideologies of authority and authenticity in the global periphery* (25.-46. or.). Routledge.
- Voloshinov, V. (1929/1986). *Marxism and the philosophy of language*. Harvard University Press.
- Woolard, K. (1992). Language ideology: issues and approaches. *Pragmatics. Quarterly Publication of the International Pragmatics Association (IPrA)*, 2(3), 235-249. <http://dx.doi.org/10.1075/prag.2.3.01woo>
- Woolard, K. (2005). *Language and identity choice in Catalonia: The interplay of contrasting ideologies of linguistic authority*. University of California.
- Woolard, K. (2016). *Singular and plural: ideologies of linguistic authority in 21st century Catalonia*. Oxford University Press.
- Woolard, K. (2021). Language ideology. In J. Stanlaw (arg.), *The International Encyclopedia of Linguistic Anthropology* (1.-21. or.). Wiley-Blackwell.
- Woolard, K. & Schieffelin, B. (1994). Language ideology. *Annual Review of Anthropology*, 23(1), 55-82. <http://dx.doi.org/10.1146/annurev.an.23.100194.000415>